



GOMENDIOAK: EKAITZAK



Gomendatzen dugu Euskalmet web-gunearen bidez <http://www.euskalmet.euskadi.eus> eta Twitter bidez (@Euskalmet eta @112_SOSDeiak) eguneratzen diren iragarpenak jarraitzea.

Hona hemen Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren aholkuak ekaitzak lehertzen direnerako, ondorio txarrik ez egoteko, edo ahalik eta gehien murrizteko:

HERRITARRENTZAKO GOMENDIOAK:

Prebentzioko neurriak:

- Ekaitz arriskuaren abisua jasoz gero, ez atera mendira edo ur-kirolak egitera

Larrialdietan hartu beharreko neurriak:

Funtsean, lur zabalean sortzen da ekaitzek pertsonentzat duten arriskua. Hortaz, ekaitza batek eragindako arrisku egoeraren aurrean **mendialdean** bazaude, hauxe egitea gomendatzen da:

- Jaitsi muino, mendixka eta bizkarretatik.
- Ez jarri aterpe bila zuhaitz bakartien pean.
- Aldendu alanbre-hesi, hesi eta edonolako gauza metalikotatik. Ez ukitu metalezko ezer.
- Tximisten arriskua sumatzen baduzu, jarri kukubilko, oinak elkartuta, besoak belaunen gainean gurutzatuta eta sartu burua besoen artean.
- Bizikletaz bazoaz, bizikleta bertan laga eta alde egin.
- Ekaitzak arrantzan harrapatzen bazaitu, askatu bertan kanabera.
- Orobat, golfean ari bazara, urrundu makiletatik.
- Igerilekuan, errekan edo hondartzan bainatzen ari bazara, irten uretatik berehalakoan.
- Ez sartu babes bila nahiko sendoak ez diren eraikinetara, edo bihitegi, hangar, estalpe edo kanpin-dendetara.

Gidatzen ari bazara eta bat-batean ekaitza lehertzen bada, gogoan izan, atea itxita baditu, ibilgailua bera aterpe ona izan daitekeela. Edonola ere, mantsotu, adi-adi egon, eta ez geratu ur asko pasa daitekeen lekuetan.

Gogoan izan, **herri barruan** ere badago tximista erortzeko arriskurik. Hortaz, kontuan hartu hau:

- Kanean, eraikinen estalpean jartzea ona izan daiteke deskargetatik babesteko.
- Kontu izan, adar, kartel edo hormarik ez jausteko gainera.
- Etxe barruan, saihestu aire-korronteak, tximistak erakartzen dituzte-eta. Horregatik gomendatzen da atea eta leihoak ixtea, ekaitza badago.
- Eduki linterna, kandela eta halako argi autonomoak eskura, elektrizitatea eteten bada.
- Deskarga elektriko handia badago, deskonektatu etxe-tresna elektrikoak eta telebistaren antena, tentsio-gorakadak kaltetzea edota deskarga elektrikorik eragin ez dezaten saihesteko.

Larrialdietan, deitu **112** zenbakira.

UDALENTZAKO GOMENDIOAK:

Prebentzioko neurriak:

- Udaleko larrialdiko planeko jarduera planean agertzen diren langileei abisu eman. Bestela, halako egoeretan lagungarri izan daitezkeen udalzerbitzuak aktibatu (udaltzainak, boluntario-taldeak, obra eta zerbitzuetako langileak, ur eta estolderietako zerbitzuak eta abar).
- Ziurtatu udalerrian, urek gainezka egiteko arriskua daukaten lekuetan, inor ez dagoela kanpaturik, batez ere, ibilgu lehorretan edo erreka-bazterretan, ur-goraldiak edo uholdeak harrapa ez ditzan.
- Ez ahaztu Udal Larrialdietako Sareko TETRA emisorea daukazula, SOS Deiak Larrialdiak Koordinatzeko Zentroarekin harremanetan jartzeko.

Larrialdietan hartu beharreko neurriak:

- Jakinarazi herritarrei ekaitz arriskua dagoela, eta azaldu zer neurri hartu behar diren arriskua prebenitzeko.

Larrialdietan, deitu **112** zenbakira.

LARRIALDIETAKO ZERBITZUENTZAKO GOMENDIOAK:

- Kontingentzia-planean egoera hauetarako zehaztutako langileei abisu eman. Bestela, egoki iruditzen zaizkizuen laguntzaileak aktibatu.
- Moldatu eskura dauden bitartekoak, dena delako egoerari ahalik eta ondoen erantzuteko.
- Jarraipeneko mahaia edo krisi-mahaia antolatuz gero, garaiz jakinaraziko zaizue, edo lehendik aurreikusita zeudenetara dei egingo zaizue.